

Literaturzaleek hitzordu berezia dute gaurtik aurrera GARAKo orrialdeetan. Larunbatero, hamabostean behin, idazle bat izango dugu gonbidatu gurean. Eta ez da edonola etorriko. Labetik atera berria duen liburua besapean hartu-

ta egingo digu bisita. Egunkariko plaza euskal literaturgintzara irekiko da aurrerantzean, gogoetarako bideak zabalduko dituzten elkarrizketekin. Jon Alonso izango da estreinako gonbidatu, «Hiri hondakin solidoak» nobelarekin.

## Euskal letrak, GARAKo plazara

Xole ARAMENDI | DONOSTIA

Hego haizea lagun zuhaitzetako hostoak gorritu eta erortzen hasi diren honetan, liburu dendetako apalak izenburu berriz betetzen hasi diren honetan, literaturari leiho berezia zabaldu diogu kultur orriotan.

Egunerokoan kazetaritzak berekin dituen presak, ahal dugun neurrian, alboratu egin ditugu une batez. Eta kafe kikara edo zerbeza baten aitzakian, Euskal Herriko literaturaren plazan izen propioa duten autoreekin elkartu gara. Guk gonbidapena egin eta haiek, onartu.

Eta hitz egin dugu. Idatzi berri duten liburua izan dugu hizpide nagusi baina ez bakarria. Aurten go udazkeneko literaturaz, sormenaz, literaturgintzaz... ere aritu gara. Eta hausnartu dugu.

Jon Alonso dator gaur gurera, «Hiri hondakin solidoak», *Lanbas* protagonista duen nobela beltz klasikoa eskuan.

Jasone Osoro, Tere Irastorza, Harkaitz Cano... hauexek dira urtea bukatu bitartean gurean bisitari izango ditugunak. Eta atzetik etorriko dira beste hainbat, irakurleokin duten hitzordura, fin-fin.

Anitza da euskal literaturaren plaza. Eta anitzak izango dira orri hauek ere. Helduen literatura, haur literatura, poesia, itzulpengintza... hainbat genero landuko ditugu.

### Literatur kritikak

Autoreak berak bere lan berrie-naz egindako hausnarketarekin batera, GARAKo literatur kritikarien sinadura daramaten artikulua irakurriko ditugu. Estibalitz Ezkerra, Iratxe Esparza, Xabier Etxaniz Erle, Asun Agiriano eta Iker Zalduearenak, hain zuzen ere.

Beraz, irakurle, hementxe gure gonbita: gaurtik aurrera, hamabostean behin letren inguruan elkartzekoa.



Literatura GARAKo plazara zabalduko da larunbatetan, hamabostean behin. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

## HAUR LITERATURA

# Alizia bizirik

Asun AGIRIANO

Shakespeare eta «Harry Potter»-ekin batera munduko kontakizun ezagunena dugu «Alizia herrialde miresgarrian». Munduaren patrimonio bihurtu dira dagoeneko «Moztu diezaietela burua!» bezalako mehatxuak.


Esaldi hori agertzen duen liburua aurten 150 urte betetzen ditu, eta, Pamiela argitaletxeari esker, Manu Lopez Gaseni edizioaren arduradun nagusia izanik, aukera dugu berriz ere euskara ederean irakurtzeko. 1989. urtean kaleratu zen argitalpena egokitu, eguneratu eta hobetu egin du irakurlearenganako begirune handia agertu eta gure sistema literarioan gutxitan ikusten den lana hartuz. Izan ere, liburuan irakur daitezkeen errimak, poemak, hitz-jolasak euskarara ekartzeko ahalegin berezia egin du. Obra hau irakurriz, itzultzailea sortzaile ere badela bete-betean antzeman daiteke.

Neskatila bihurria dugu Alizia, umore eta ironia franko erabiltzen dituen. Jo-

koa eta absurdoa da nagusi obra guztian, horrela dio Lewis Carrollen esaldiak liburuaren kontrazalean, liburuak ez darama irakaspenik, ezertxo ere ez du irakasten. Abentura liburu da, beraz, funtzio didaktikoa izateko arriskurik ez daukana.

Umorearen kontzeptio berezia planteatzen du Carroll-ek «Alizia» liburuan, umore linguistikoa deitu izan zaio, hitz-jokoak, errima eta soinu bereziak, hitzen distorsio eta esanahi bikoitz ugariak, hitzen zuzentasun- eta zorrotasun-jokoak.

Liburuak agerian uzten ditu irakurlearen kompetentzia literario batzuk; izan kontuan orain dela 150 urte baino gehiago sortua dela. Egun, obra kanonikotzat hartzen da, eta irakurlearen formazio literarioa jasotzeko orduan, ezinbestekoa. Obra kanonikoen zailtasunak saihesteko bitartekariak behar dira, horregatik helduok saiatu beharra dugu haur irakurleari kontakizunaren ulermen bideak errazten. Jatorriz ahoz kontatzeko sortu zen liburua, ozen irakurria izateko. Haur



### ALIZIA HERRIALDE MIRESGARRIAN

**Autorea:** Lewis Carroll.

**Itzulpena:** Manu Lopez Gaseni.

**Argitaletxea:** Pamiela, 2015.

**Orrialde kopurua:** 144 orri.

**Salneurria:** 18 euro.

txiki-txikiei ahoz kontatzen ohituta gauden, baina, adinean joan aurrera, bitartekariok liburua eman eta bakarrik uzten dugu irakurlea.

Testuarekin batera ezin dira ahaztu Tenniel-en grabatu paregabeak, liburuari osotasuna ematen diotenak. Carroll-ek berak ulertu zuen irudiek zer garrantzi duten, liburuaren lehenengo paragrafoan horrelaxe agertzen baita: Zertarako balio du liburu batek irudi eta elkarrizketarik ez badauka?

Haurtentzako literatura esparruan «Alizia» berritzailea izan zen, garai hartan umeentzako liburuak moral estu bati lotuta zeuden, maitagarrien ipuinak ere gaizki ikusita zeuden. Hori guztia apurtzera etorri zen «Alizia». Helduen mundu kodifikatuaren aurka azaltzen da, ez dauka garbi handitu nahi duen ala txiki izateari eutsi nahi dion, haur guztien barruan bizi den kontraesana islatzen du, liburuaren kontrazalean jasotzen den moduan. Bartzuetan normaltasunera itzuli nahi du, besteetan gustura dago aldrebeskeria horien guztien erdian.

Dagoeneko «Alizia» ez da gazte-gaztea, baina bizi-bizi eta osasuntsu dago. Zorionak berari eta baita guri ere horrelako edizio zoragarria daukagulako!